

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2022/11/23

Saila	Laburpena	
Obrak	Auzotar batek Mutiolako berrurbanizazioan lan egiteko eskatu du.	Proiektua jasotzeko eta bizilagunei aurkezteko zain gaude.
Zerbitzuak	Mutiola kalea garbitzeko eskatu du. Berdinez edo lirdingaz beteta dagoela esan du.	Mankomunitateak jakinarazi digu desugertzeko makinarekin garbitu zela.
Udaltzaingoa	Sansaburuko garajeen ondoan semafororen bat jartzeko eskatu du. Adierazi du ezen, Errekatxuko kaminoaren obrak direla-eta, garajeetan ibilgailua dutenek Urkizuraino jaitsi beharra dutela Ermurantz buelta emateko.	Ez da komenigarri ikusten semaforoak jartzea.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du hilerrian konponketa-lanak egiteko, hormatik harri-morroiloak jausten ari direlako.	Obrak maiatza-ekaina bitartean egingo dira.
Zerbitzuak	Urkizuko ikastetxe ingurua garbitzeko eskatu du.	Mankomunitateak jakinarazi digu inguru hori astean 6 egunetan garbitzen dela; gainera, espaloiak desugertzeko makinarekin garbitu ziren 2023/04/14an.
Zerbitzuak	Polonia Etxebarria eta Urki lotzen dituen eskailerak garbitzeko eskatu du. Adierazi du oso toki umela dela eta lirdingaz eta zikinkeriaz beteta dagoela.	Eskailera horiek astean 6 egunetan garbitzen dira; gainera, desugertzeko makina pasatu zen zinegotziaren aginduz.
Zerbitzuak	Polonia Etxebarria inguruan arratoiak daudela salatu du.	Desratizazioaren arduradunari abisua pasatu zitzaion, arazoa konpontzeko beharrezkoak diren neurriak har zitzan.
Obrak	Eroskiko igogailuaren irteeraren eskuinaldeko espaloia konpontzeko eskatu du.	Konponketak behar dituen espaloia bat da eta sartuta dago egin beharreko zereginetan. Saiatuko gara espaloia birmoldatzen 2024an.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2022/11/23

Saila	Laburpena	
Zerbitzuak	Auzotar batek, Polonia Etxebarria 21 zenbakiko garajeen izenean, salatu du hezetasun-arazo bat dutela. Gainera, adierazi du estalkiko erlaitzaren zati bat solte dagoela oraindik, eta ura sartzen dela euria egiten duen bakoitzean, hustubideak trabatuta daudelako.	Alde batetik, hezetasunei dagokienez, esan behar da garajeko kalteen gaineko erantzukizun-espedienteak, hirigintzako aholkulari juridikoari kontsulta egin ondoren, hamar urteko erantzukizuna preskribatuta dagoela, eta, beraz, Udala hutsune horiek konpontzetik salbuetsita egongo litzatekeela. Hala ere, urbanizazio horren sustatzailea IMESA izan zela jakinda, Udalak erreklamatutako akats horiek konpontzeko aukera aztertuko du. Erlaitzaren egoerari buruzko kexari dagokionez, erlaitz soltea finkatzeko lan-agindu bat eman zen, eta jarraian egin zen lan hori.
Udaltzaingoa	Salatu du Polonia Etxebarria 21 inguruan, kotxeak egoten direla aparkatuta espaloietan, desgaitasuna duten pertsonentzat jarritako pasabideetan.	Erlaitzaren egoerari dagokionez, lan-agindu bat egin zen erlaitz soltea finkatzeko, eta berehala burutu zen lana. Ingurua zainduko da. Ikusten denean zebra-bideetan edo desgaituentzat gordetako tokietan behar ez bezala aparkatutako ibilgailuak daudela, salatu egiten dira, eta, hala badagokio, garabiarekin erretiratzen dira.
Udaltzaingoa	Batek eskatu du Urkin Udalbuseko zerbitzua berreskuratzeko.	Erabilerari buruzko azterlan bat egin ondoren, Urkiko Udalbuseko zerbitzuaren ordezkari taxibusarena jarri zen.
Zerbitzuak	Urki kalearen behealdean, 11 zenbakiaren inguruan, arratoiak daudela adierazi du,	Desratizazioaren arduradunari abisua pasatu zitzaion, arazoa konpontzeko beharrezkoak diren neurriak har zitzan.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2022/11/23

Saila      Laburpena

Zerbitzuak	Jakinarazi du igogailuaren ondoan landare igokari luze bat dagoela, hormaren behealderaino iristen dena; eta, gainera, liztor asiarren kabia bat dagoela.	Lan hori ezponda bertikalak garbitzeaz arduratzen den azpikontrataturako enpresak egiten du. 2022/12/12an amaitu zuen lana.
Zerbitzuak	Kexu da, Polonia Etxebarria 8 eta Urki 10 zenbakien artean, landare igokari asko dagoelako eskailerari itsatsita, eta traba egiten dutela.	Goian emandako erantzun bera.
Zerbitzuak	Igogailua askotan matxuratzen dela eta igogailu-hobia urez betetzen dela salatu du.	Mantentze-lanez arduratzen den enpresari eman zitzaion abisua eta igogailua aztertu zuten.
Zerbitzuak	Errekatxuko bizilagun batek galdetu du ea Errekatxu ingurua txukundu behar den. Zehazki, Sansaburu eta Errekatxu artean dagoen ezponda.	Errekatxuko arbolak urtarrilean kimatu ziren. Ezpondaren egoerari dagokionez, ikuskatu egingo da, eta segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzetan ez badago, lursail horren jabeari eskatuko zaio garbiketa egiteko. Agindutakoa betetzen ez bada, jakinarazpena jasotzen denetik hilabeteko epean, garbiketa egingo da behartutakoen kontura, betearazpen subsidiarioko prozeduraren bidez.
Zerbitzuak	Eskatu du Errekatxuko zenbaki bakoitietako espaloia garbitzeko.	Mankomunitateak jakinarazi digu inguru hori astean 5 egunetan garbitzen dela. Gainera, berretsi digu espaloia desugertzeko makinarekin ere garbitu dela.
Hirigintza	Miguel de Aguinaga kaleko bizilagun batek kexa adierazi du bere higiezinaren azpian gimnasio edo dantza-eskola bat zabaldu dutelako, eta musika oso altu egoten delako.	Miguel de Aginaga kaleko 1. Zenbakian, aurretiko komunikazioa aurkeztu duten bi jarduera daude, nata eskuzko terapien centro bat eta bestea eliza bat. Biek dokumentazioa

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2022/11/23

Saila	Laburpena	
		aurkeztuta dute, eta teknikariek bisitatzeko zain daude, baina aldez aurreko jakinarazpena arueztutakoan karduerari ekin diezaiokete.
Hirigintza	Gazteen lokalak irekitzeko araudiaz galdetu du. Miguel de Aginaga 5-Mutiola 4 zenbakian dagoenak ez duela araudia betetzen dio.	Miguel de Aginaga 5. Zenbakiko lokala 2018. Urtetik dago legeztatuta; une honetan, urriaren 6tik, ostirala, itxita dago, zarata-salaketak direla eta.
Zerbitzuak	Eskatu du Urkiko espaloiak txukuntzeko. Adierazi du baldosa asko apurtuta daudela.	Bai Urki aldean bai beste toki batzuetan etengabe konpontzen dira baldosak; Brigadak etengabe egiten du lan hori. Ez dugu kexa gehiagorik eduki Urkiko baldosen egoeraren gainean.
Zerbitzuak	Urki auzoan Gabonetako apaingarriren bat edo argiren bat jartzeko eskatu du.	Gabonetako argiak EIBAR Merkataritza Zentro Irekiak gestionatzen ditu; Zerbitzu Sailak ez du zerikusirik gai horretan.
Obrak	Urkiko jaitsierako lehen bihurgunean dauden zulo batzuk konpontzeko eskatu du.	Konpondu dira.
Udaltzaingoa	Eskatu du aparkaleku-plazak pintatzeko igogailuaren irteeran, Urki 20 zenbakiaren ondoan.	Ez dago 20 zenbakiko ataririk Urki kalean.
Udaltzaingoa	Auzotar batek salatu du pertsona asko beren txakurrekin ibiltzen direla Urkiren goialdean eta ez dituztela kakak jasotzen.	Ikusten denean txakur baten jabeak ez dituela bere animaliaren kakak jasotzen, bidezkoa den salaketa egiten da.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2022/11/23

Saila      Laburpena

Obrak	Urki 23 zenbakiaren ondoan igogailu bat egiteko (Urkiko igogailuaren orde) eskatu du. Adierazi du toki horretan bihurgunea ez dela hain inklinatua, eta auzorako sarbidea erraztuko lukeela.	Ez dago halakorik egitea aurreikusita.
Obrak	Proposatu du igogailu bat eraikitzea epaitegi ondoko haur-parketik goialderaino, 23 zenbakiaren ondoan.	Ez dago aurreikusita epe ertainera halakorik egiterik, irisgarritasunean beste proiektu premiazkoago batzuk daudelako.
Obrak	Bizilagun batek proposatu du ur-jolasak Mekolan jartzeko; egingo den urbanizazio berrian.	Hainbat aukera aztertu ziren, eta azkenean erabaki zen Txaltxazelaian jartzea.
Zerbitzuak	Auzotar batek salatu du Ubitxa 21 zenbakian enborrak eta adarrak daudela pilatuta, 23 zenbakiko bizilagun batek egin zuen inausketaren ondorioz.	Lursail pribatu bat da; beraz, ez da Udalaren erantzukizuna hango mantentze-lanak egitea. Hala ere, ingurua ikusi ondoren, esan behar da enborrak eta adarrak kendu zirela.
Obrak	Errekatxu eta Bistaeder arteko errepidea zabaltzeko eskatu du.	Apirilean zabaldu zen, urbanizazio-obren lehen fasea amaitzean.
Zerbitzuak	Errekatxuko bihurgunea garbitzeko eta arbolak inautzeko eskatu du.	Urtarrilaren hasieran kimatu ziren arbola horiek (AMAIERA 2023/01/04).
Zerbitzuak	Eibarko Txikito 6-8-10 zenbakien ostean burdin-hesi bat jartzeko eskatu du, pixatoki bat delako eta botiloia egiten leku bihurtu delako.	Egin zuten.
Zerbitzuak	Eibarko Txikitoko garajearen fatxada pintatzeko eskatu du. Adierazi du belztua dagoela jausten den uraren eraginez.	Ez da lehentasuntzat jotzen garajeko fatxada pintatzea.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Urki 2022/11/23

Saila	Laburpena	
Hirigintza	Ubitxako Albizu harategiaren ondoan arrakala handi bat dagoela salatu du.	Arkitektoak oharra hartu eta ingurura hurbildu zen egiaztapenak egiteko.
Hirigintza	Urki 14 zenbakiko auzotar batek galdetu du ea zer aukera duen komunitateak igogailua jartzeko pegoran, ezin bada iritsi adostasun batera etxepekoekin.	Igogailua jartzeko, komunitatearen eta bizilagunen adostasuna behar da. Beraz, araudia bete behar da quorumari dagokionez. Ikusi beharko litzateke araudiak zer gehiago eskatzen duen.
Zerbitzuak	Eskatu du Urki 10, 12 eta 14 zenbakietako goialdea garbitzeko.	Mankomunitateak jakinarazi digu inguru hori astean 6 egunetan garbitzen dela.
Zerbitzuak	Urki 8 zenbakiko emakume batek etxe ostean dagoen horma garbitzeko eskatu du.	2023ko aurrekontuan ez dago jarduera hau jasota. Kontuan hartuko da hurrengo urteetarako.
Hirigintza	Galdetu du ea zer proiektu duen Udalak Potosioneko etxerako.	Jabetza pribatua da. Beraz, jabeak kudeatzen du.
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Herritar batek jakinarazi du, sarritan, Mankomunitateko kamioia ezin izaten dela Urkitik igaro, ibilgailuek lerrotik kanpo aparkatzen dutelako. Proposatu du Urkira doan kamioia txikiagoa izatea, edo, edukiontzien kokapen aldatzea, edo tamaina handiko ibilgailuak aparkatzea debekatzea.	Mankomunitateak: bai, halakoak gertatzen dira. Ezin da igaro kale beretik ibilgailu desberdinekin gaizki aparkatzen delako; dauden baliabideak ahalik eta gehien optimizatu behar dira. Arazo hori ez da kale honetan bakarrik gertatzen. Beste toki batzuetan ere edo gaizki aparkatzen dute edo debekatutako tokian aparkatzen dute eta horrek eragozpenak sortzen dizkie kamioiei.